

Goibekokale

1998ko otsaila. 32 zk.

EL GETAKO ALDIZKARIA

**RAISA, ARTZAI
ALEMANIARRA
ONDO
MOLDATZEN
DA BAI
ELURRETAN
BAI
BASOAN**

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

"Bakea behar dugu"

Udaletxeko balkoian dagoen
pankarta Herri batasunaren
proposamena da, plenoan
onartutakoa.

Bakea, bernetako bakea, behar dugulako eta bakearen alde egin, egiten eta egingo dugulako, plenora eraman genuen "Bakea behar dugu" balkoian jartzeko proposamena: bakea naziotasuna (ikurrina) eta euskara (hizkuntza) lortzen direlako.

Euskal Herriaren bakearen alde egiteagatik, HBko mahai nazionala kartzelan dago eta beren artean Elgetako semea den Jose Luis Elkoro.

Jakin badakigu interes handiak daudela benetako bakearen aurka eta baita ezker abertzalearen kontra ere.

Hamaika txorimalok bakea aipatu bai baina, gauzak dauden moduan jarraitu dezaten ahaleginak egiten dituzte (poltsikoak bete, entxufismoa, "kamisa azula" lazo urdina bihurtu, aitaren etxea saldu...)

Egoera honetan eroso bizi direnak ez dute benetako bakerik nahi, baina ezker abertzalearen konpromezua bakea lortzea denez, nahiz eta kartzelaratu, ez gaituzte gure bidetik aterako.

Elgetako HB

Faunako errege dirua

-Loterixako dirua kobrau ta boteilla ardaa ta pintxuak ekarri dozkunik egon da bere buzoian hilerio alia egotia eskertzia gura ebala ta. Izan da txokotatiñak ekarri dozkunik be eskertu guran.

-Loterixako dirua aldizkarirako laga dabenak: Batzuk kobrautako dana, beste batzuk bi milla peseta, milla, sei milla, hamasei milla eta baita hogeituro be.

-Loterixako dirua kobratzera Angiozartik etorri diran tabernarixak, Angiozarko liburutegiko arduraduna, Elgetako tabernarixak... Danak euren poltsikotik dirua ipinitxa hasiera baten.

-Loterixako dirua kobrau ta agur esan ostian fan diranak izan dira gehixenak zorionez.

-Loterixako dirua ez kobratzeko bildurrakin dabillenik be badago. Hoixe behintzat ez giñuke gura.

-Loterixako dirua modu txarrian tabernarixai eskatu dotsenak, Udaletxian eskatu dabenak, gure etxetara etorri diranak kobratzera, etxera telefonoz deittu daben guztiak...

-Loterixako dirua domeka eguardixan kale gorrixan eskatu doskunik ez da falta izan.

-Loterixan diruik ez tokau ta Elgetako taberna bateko txartelakin kobrau dabenik be badago.

Loterixako diruan usaiñian fauna oso bat.

Martxuan hamalauan berrero pago eguna, dirua errege dan basoko bizitzia zer dan ikusteko beste egun bat.

Danei eskerrikasko ta hurrengo urtera arte, berriz be tokau bihar jakula esan dozku txoritxo batek ta. Hola bada, barria ezpanetan dakaula emongo dogu berriz be dirua, diru errepartitzaille izatia ez da ta egunero egitten dan lana.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

ER

Empresa
Registrada


ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salvador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Kirolaren nondik norakoak

Ukaezina da kirol mundua asko aldatzen ari dela.

80ko hamarkadan Euskal erakundeek, Gobernuak, Diputazioek eta Udalek diru asko inbertitu zuten kirolean: instalazioak, goi mailako taldeak, ekitaldiak, etab. Kirola herriarengana hurbildu nahi zuten, eta esan dezakegu helburu nagusia lortu zutela.

90eko hamarkada heldu eta iturria gero eta "ur" gutxiago ematen hasi zen, diruak beste bide batzuk hartzen zituen eta kirola "egarria" sufritzen hasi zen. Kirola oso merke edo dohainik egitera ohituak geunden, klubak eta elkarteak erakundeetatik dirulaguntza mardulak jasotzera eta hori ere amaitzen joan zen.

XXI. mendearen atarian kirol taldeak ez dira lehengoak, futboleak, hainbat, enpresa bihurtu dira eta beste kirolean laguntzaileen eskasia eta diru arazo itzelak direla medio, desagertzeaz daude. Garai berrietara moldatu behar dira, bestela...

Aldaketei buruz hitz egiterakoan pilota munduak merezi du aipamen berezia. Eskulari eta Enpresas Unidasen garaia amaitu ostean monopolioaren garai heldu zen Asegarcerena hain zuzen ere. Asegarek telebista erakarri zuen pilotara, eta beste ikutu bat eman zion. Baina, gehiegitxo harrotu da: pilotariei kontratu zorrotzak inposatuz, ETBri baldintza onartezinak planteatuz eta hainbat pilotalekurekin gaizki portatuz. Ondorioa, bat-bateko matxinada eta pilota mundua beste 180 gradu mugitu da.

Guzti hau zertarako kontatzen dizuedan, arestian esan dudana baieztatzeko, besterik ez.

Iñaki Ugarteburu



Bertsolariak Elgetan noiz?

Euskal Herrian ezagutzen dugun espresio kultural zaharretakoa da bertsolaritza, gure herriko nortasuna ezagutzeko ezinbestekoa.

Beste goi mailako kultur ekintzekin alderatuz guztiz herritik sortutakoa. Boterea kritikatzeko edo maitasuna adierazteko, euskaldunok historian zehar erabili duguna.



Azken urteotan berriz modan egotea lortu du, belaunaldi berriak gogor heldu direlako bertsolaritzaren irudia erabat aldatuz.

Elgetan ere urte asko ez dela bertso giroa nahiko hedatua zegoen. Urtero bertso jaialdia antolatzen zen eta bertso ikastaroa ere burutu zen, bertan herriko talde polit bat bertso giroan murgildu zelarik.

Urtero martxoan lehen barikuko bertso saioa aurrera eramateko, talde zabal bat eratzen zen, bertan gaiak asmatu edo saioari karakterizazio berezi bat emateko. Hau dena Udaletxeko Euskara batzordetik eramaten zen aurrera, azken hauteskundeak izan ziren arte. Orduan Patxik euskara batzordea kultura batzordearen barruan sartzea erabaki zuen. Hor bukatu ziren Elgetako bertso saioak. Aitzakia lokal egokirik ez egotea zela esan zuten baina, harrezkero Gimnasioan ekintza kultural ezberdinak burutu dira.

Itxura denez, Elgetako jeltzaleei ez zaie gaurko bertsolaritza gustatzen.

Sebastian Arantzabal



GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka eta Igoi Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igoi Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Sebastian Arantzabal eta Iñaki Ugarteburu. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GAZTETXIAK 2 URTE EKINTZAZ BLAI

Goibekokalek hiru eta Gazteteak bi. Gaztetearen urteurrena ospatzeko ekintza ugari prestatu ditu Gazte Asanbladak.

Martxoaren 18an, eguaztena, Futbitoko 24 orduak jokatu dira. Ekintza hau frontoian egingo da. Izena ematen duten taldeen arabera izango da txapelketa era. Talde ezberdinek izena emateko jarriko dira kartelak kalean eta tabernetan.

Hilaren 19an, eguena, okupazioari buruzko bideo bat proiektatuko da Gaztetearen. Egun honetan Ping-Pong txapelketa ere antolatuko da.

Hilaren 20an, barikua, haur eta gazteteontzako ekintza ugari antolatu dira, goizean mendi irteera egingo da. Bazkari ordurako buelta Guraso Elkarteak prestatutako bazkaria jateko Gaztete aurreko kantxan. Bazkalostean futbol hiru txapelketa haurren-tzat. Iluntze aldean zine emanaldia gimnasioan. Txikitxoentzat marrazki bizidunak izango dira eta besteentzat pelikula

bat. Gauean bestalde *Goibekokaleko* urteurrena dela eta Niko Etxart eta Dominique Etxarten kontzertua izango da gimnasioan.

Hilak 21ean, zapatua, Gaztete urteurrena, eguerdi aldean poteo herrikoia trikitilarietara. Ondoren bazkaria Gaztete aurreko kantxan. Bazkarian Juanito idiazabaldira txiste kontalariak parte hartuko du. Bazkalostean jokuak. Iluntze aldean ekintza berria antolatu da, aerobitona. Salvador kalea dantzariz betetzea espero dute Gaztete koek. Aerobitonean arituak direnak eta sekula izena ere entzun ez dutenak zita egina dute arratsaldeko zazpitan. Ondoren poteo herrikoia trikitilarietara eta gauean kontzertu mundiala Gaztetearen Trikitixa Kontrairo taldearekin.



Aurtengo bazkarian txiste kontalari bat egongo da. Ehun lagunetik gora espero dira bazkaltzeko.

Martxoak 8 emakumeen eguna

Martxoak 8 erreibindikazio eguna da eta horixe egingo du Gazte Asanbladak ere. Aurreko egunean, zapatuan, hitzaldia izango da Amaia Bazquezen eskutik (sexologian aditua eta irratian ezaguna dena). Gaiarekin loturiko pelikularik ere ez da faltako. Informazioa ere eskuragai izango da eta baita meriendatxo bat ere. Ez galdu aukera; martxoaren zazpian Gaztetearen.

Goibekokalek 3 urte. Niko Etxart eta Dominique bere aitaren kontzertua

Bete dira hiru urte hilabete-karia ateratzen hasi ginenetik. Hiru urte Elgetak aldizkari euskalduna duenetik. Hasierako oztupoak gainditu eta hilero ale bat daukagu elgetarron etxeetan.

Hasieran "eitteko desiatzen" genden, poliki-poliki hasiera-ko desuia betetzen doia.

Martxoaren 20an Niko Etxart eta Dominique bere aita izango ditugu polikiroldegiko gim-

nasioan, *Goibekokalaren* urteurrena denok batera ospatzeko, *Goibekokale* irakurleona baita. Ea ba urtero jarraitzen dogun danok batera hilekarixa "eitten".

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria Errementeritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

INOIZ BAINO MOTORZALE GEHIAGO ELGETAN

Otsailak 14 eta 15ean, Moto Club Arratek antolatzen duen "Motorzaleen IV. Neguko Bilkura" izan zen Elgetan. Aurreko urtetan ez bezala, aurten egin duen eguraldi onak inoiz baino motorzale gehiago inguratzea eragin zuen.

Urtero bezala eguerdi partean hasi ziren motorzaleak iristen. Arratsaldeko 15:00etan hasi zen izen-ematea. Salda beroa probatu ondoren jokoak egon ziren motorzaleentzat, nekatuta tabernetara joan ziren bertan prestatuta zeuden pintxoak jatera. Iluntze alderako motor pila galant inguratu zen herrira.

Herriko plaza eta tabernetan motorra zen gai nagusia. Afaldu ondoren, karajilo eta sutzarraz gozatu eta gero, motorzale gehienak etxe aldera joan ziren. Hemen geratu zirenek goizaldera arte juerga egin zuten kaskorik gabeko herritar askorekin batera. Ea hurrengo urtean ere eguraldiak laguntzen duen.



Motorista izatea txiki-txikitatik barruan eramaten den zer-bait omen da.

SEKULA EZ BEZALA OSPATU DIRA KARNABALAK

Urtero bezala otsail erdialdean egun seinatua da karnabalena. Haur, gazte eta helduek ondo pasatzeko ekintza ugari izan dituzte. Parrokiak eta guraso elkarteak ekintza berria bultzatu dute.

Barikua bultzatzeko nahia zegoen eta lortu dela esan dezakegu. Lehenengo aldiz haurren eguna barikura pasa da. Gau aldean, gazte sentitzen diren guztien ordua iritsi zen. Mozorrotuta zeuden tabernari gehienak: GuggenElgeta, Mexikanoak, Elkorok debutatu zuen frontoia, Vanpiroak, eta Kobazuloa.



Gauean kobazulo ezberdinetatik etorritako trogolitak, inglate-rako behi eroak, konbentuko fraileak eta monjak, baloi gabeko futbolista, sorginak...zer ez, denetik ikus zitekeen!

Martitzena aldiz umeen txanda berriz ere. Parrokiako eta gurasoen elkartearen ekimenez Lan-tzeko iñauteria antzeztu zuten. Ziripot eta Txatxuen taldea batetik eta Miel Otxin eta Txukunen taldea bestetik kalejiran ibili ziren martitzen karnabal egunean. Mari Isabel dantzarekin herriko plazan amaitu zuten ekitaldi berri hau.




F . O . R

Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38



salbador
19
behea

BILTEGI DENDA

Zugandik
gertu behar
duzun beste

Salbador 24 Tel: 768206

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

Bake epaitegiaren iharduera berriak

M^a Angeles Elkorok Bake Epaitegiaren funtzioak utziko ditu Elgeta, Antzuola eta Urretxu herrietako Bake Epaitegien Idazkaritzan Elkarteak onartu ondoren.

Aurrerantzean lan hau Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko pertsonalak hartuko du.

Elgetan martitzenean goizeko 9:00etatik 13:00etara egongo dira Udaletxean. Epaitegiak betetzen dituen ohiko lanez gain, beste zenbait lan ere hartuko ditu. Deialdiak, Adierazpenak, Salaketak, Aitorpenak... Honetaz gain Erregistro zibileko lanak ere beteko ditu: jaiotze agiriak, heriotza agiriak, ezkontza agiriak, bizi eta egoera zibileko agiriak, abizenak euskal grafiara egokitzeko lanak, izen aldaketak, jaiotza aitorpenak, heriotza aitorpenak, ezkontza zibilak, gurasoen aitorpenak eta bai-menak, etab.

Aldizkariko gabonetako loteria

Martxoak 14an, zapatua izango da gabonetako loteria kobratzeko azken eguna. Ez dadila inor kobratu gabe geratu. Goizez pasa zintzekete 10:30etatik 13:00etara. Ea hurrengo urtean ere zortea dugun.

“ATZEKOKALEKO” OBRAK EZ DUTE SALBADOR OINEZKO BIDE EGINGO

Etorkizun labur batean ez da oinezko bide izango behintzat. Orain egiten ari direna, 1998ko otsailean egindako proiektuaren lanak dira. Bertan agertzen da lehen aldiz garajeak egiteko kontua.

Salbador kale atzeko obrak erritmo onean doaz. Ingurua urbanizatzea, jardinak, argizatzea... Umbe eta Elkorok jarritako dirurarekin egongo dira gehienbat lan hauek eta Udaletxeak ere bere parte jarriko du Elkorok azpian lautada egin eta kale barreneko zatia urbanizatzen.

Haserako proiektutik egon da bariantearekin lotuta bide hau egitea. Dena den, orain indar handiena hartu duen proiektua Eibarretik (mataderoan errotonda eginda) Kanpazarrera doana izan da eta egiten ari diren kale hori ez da bariantearen obren barne egongo. Salbador kalea oinezko bide egiteko ere balio zezakeen kale honek baina, kamioi eta kotxeek oraindik ere Salbador izango dute pasabide, kale berria Salbador 1 etxebizitza ondoan amaitzen baita eta ez Gudarien bidean.

Garaje berriak ere egin dituzte eta zubi batez lagunduta 20 garaje inguru prestatu dituzte dagoeneko salgai daudenak.

Kale berrian 9 aparkaleku egongo dira eta Berraondokuaen bestealdean ia 50 aparkaleku berri.

Obrak burutzeko 61.910.952pta. erabiliko dira. Udaletxeak, urbanizatu gabe geratzen den zatia urbanizatu eta Elkorok azpia lautzeko eta aparkatzeko moduan uzteko 6.400.000pta ditu sartuta aurrekontuan. Atzealdean dauden txabolak bota eta terrenoak erosteko berriz 3.790.000pta erabiliko dira. Urbanizazio lanak ekainaren 30erako amaituta egotea espero dute udaletxeako ardura-dunek.



Argazkian ageri diren txabolak bota eta inguruko terrenoak erosteko 3.790.000pta erabiliko ditu Udaletxeak.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



KARNABALAK



Karnabal domekaz Angiozarko neska mutikoen nafarroako Iturengo zantzarren antzezpena egin zuten elizpean, antzerki eta guztiz lagunduta. Marti-tzenean oster eskolako ikasleak izan genituen kalean zehar arratsaldea girotuz, ondoren denak soziedadean elkartu ziran txokolatea jateko.

Urteak pasatu ahal indartuz doa mozarrotzeko ohitura, eta aurtien euskal giroko karnabalen antzezpena ere eginda, ea poliki-poliki nortasuna hartu eta bertako kutsua ematen diogun urteetan galduak egon diren jai hauei.

Frontoiko lanak martxoan hasiko dira

Azkenik adjukikatu dituzte frontoiari teilatua, jarleku berriak eta aldalekuak egiteko lanak. 62 miloiko aurrekontua zuen aurikusita lanok egiteko Udalak aurtengo aurrekontuetan, baina egon diren eskaintzetan aukeratu dutenak hamar milio gutxiagoan egingo ditu lanok.

Aspalditik diru zain egon diren lanok zeharo eraldatuta lagako dute frontoia. Teilatuz gain orain dauden jarlekuak bota eta beste batzuek egingo dituzte aurrerago, kontrakantxari zatia kenduz. Bestalde, frontisaren eskumakaldera egingo dituzte aldalekuak eta tresneriarentzako almazena, horretarako beste eraikin bat jasoko delarik.

Lanok martxoaren erdialdera hasiko dira eta lau hilabetetako epea dute bukatzeko, beraz, udarako frontoi berriztuan pelota hotsak entzuteko bezala izango gara eta San Migeletan festibal bereziren bat antolatzeke moduan, egoki inauguratzeko.

Azkunetan suteetarako babesazarri dute


Azkuneta auzoan suteetarako ur ahoak ezarri zirenetik horretarako mangerak ipintzeko asmoa zegoen eta heldu da horiek ipintzeko garaia ere. San Martin ermitaren elizpean ipini da mangerok edukitzeko armarioa eta guztira auzoko edozein etxetara heltzeko aukera ematen dute tuberiok suteran bat izanez gero.

Orain sute-ariketarako egitea gelditzen da bakarrik, edonork jakin dezan nola lotu tubuok, zelan zabaldu ura, eta abar.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



Ze egitten dare Salbador kale ostian? Zuretako behiñ hola-ko obra bat egiñdda, fatxadak be aldatu bihako litzakez?

Oingo hilian Salbador kale ostian hasi diran obrira dala ta, jentriak ze dakin edo ze pentsatzen daben galdetzia pentsau jaku aproposena.



Etxekoandria (28 urte)

Ez dakitt seguru zer doian hor kale ostian, baiña pentsatzen dot Salbador kaletik kotxiak ez pasatzeko egiño dan desbion bat izango dala. Ez dot uste etxien atzekaldeko fatxadetan aldaketa haundirik egongo danik.




Jubilatua (65 urte)

Ez dot uste gauza onik egiño dabenik, azkenian beste txapusan bat urtengo da. Kale hori egitten bada, fatxadan be zeozer egiñ bihakola dala pentsatzen dot, bestela zatarra geldittuko da.



Ikaslia (11 urte)

Ez jata pentsatzen ondo dagonik hor atzian kalia egittia, alperrikako lana pentsatzen jata. Ez dot uste etxeosteko fatxadak aldatu biharrik egongo dianik. Oingo egunetan etxian be igarri dira obretako lanak.




Langabetua (36 urte)

Alde batetik ondo pentsatzen jata, holan Salbador kalia peatonala egiño zalako baiña bestaldetik herrixa piskat aparte lagako leuke. Fatxadak uste dot holan geldittuko diala, baiña ez litzakez geldittu bihako.




Ikaslia (14 urte)

Ez dot uste oso logikua danik hor atzetik kalia egittia. Alperrikakua pentsatzen jata. Ez dago zertan fatxadak aldatu, oiñ dagon moduan be kalia bardiñ-bardiñ geldittuko litzake.



Bihargina (36 urte)

Ondo pentsatzen jata beste kalia egittia, holan Salbador kalia peatonala izango da, ta kotxiak kale ostetik pasauko dira. Ez dot uste obra horrengaittik fatxadak aldatu biharrik egongo danik.



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

♈ Aries: Gorrana egingo dok/don baiña, komeni jatanian.

♉ Taurus: Uste ez duan zuluan sartuko haiz ta nok etarako hau?

♊ Geminis: Soldata igoera inportante bat eukiko dozu.

♋ Cancer: Argi ibili kriston gripia hartuko dok/don ta.

♌ Leo: Derrigortuta hartu biharko dok/don deskantsua

♍ Virgo: Estafa batian sartuta agertuko haiz eziñ urtenga.

♎ Libra: Erosketak egittera fango haiz ta ez dok/don ezer topauko neurrikua.

♏ Escorpio: Disfrazu kentzeko ordua alleau da, MOSTRUO.

♐ Sagitarius: Trafiko multa bat etorriko jatzu baiña ez dozu pagau biharko.

♑ Capricornius: Espero ez dozun bidaia bat erregalauko dotzu baiña ez dozu fateik izango.

♒ Acuaris: Zu moduko mekanikoik ez dago. Mahixa ta platera aurrian dagonian.

♓ Piscis: Menditxik buelta bat egiñ burua freskatzeko.

Juan Bautista Markiegi Periodiko saltzaillia (70 urte)

- Zenbat urte periodikuak saltzen? 40 urte inguru.

- Zenbat periodiko saltzen dia egunian? 130 gutxi gora behe-
ra.

- San Balentin eguna ospatzen dozu? Lehenau bai baiña oiñ ez.

- Zer da plazan ikusi dozun gauzaik harrigarrixena?

Gauza raro asko ikusten dia, baiña batez be karnabaletan.

- Zer da periodikuak saltziak daukan gauzaik txarrena? Hotza pasau ta goizian goixau jaiki biharrira.

- Zer nahixau dozu, periodikuak saltzia ala kioskuan egotia?

Kioskuan egotia.
- Ze periodiko irakurtzen dozu? Diarixua.

- Eguenetan urte-tzen dian aldizkariak irakurtzen dozuz, ¡Hola!, Interviu...? Ez, bat bez.

- Zer egiño ziñuke domeka goizian zure seme-alaban bat juer-gatik ailegatzen ikusiko baziñu?

Sarritxan ikusi dittut, ohittuta nago.

- Sekula mozo-
rrotu zara karnabaletan?

Karnabaletan ez baiña bestela bai. Zertaz? Gauza askona, horrek ez dauka topeik.

- Periodikuak saltziaz gaiñ, zer egitten dozu? Kanpantorreko erlojua zainddu.

- Zer egiño ziñuke zure bizi-modua hobera aldatzeko? Jan, lo ta bihar danak laga.

- Jente asko ibiltzen da autobusez goizian?

Segun, batzutan beste batzutan baiño gehixau.

- Sekula etorri da pertsona famatuik periodiko eske? Behiñ

edo behiñ etorri dia Euskal

Telebistakuak entrebistak egittera.


- Iñoiz egiñ dotzu uson

batek kaka belarri ostera? Bai sarritxan, txapele-
ra be bai.

- Usua saltzan probau dozu? Bai askotan, okela egosixa moduan ipinita.

- Sekula aldatu dotzazu ume bati paketia? Bai, atzo bertan.

- Gustauko jatzun Elgetako alkatia izatia? Ez, horrek beste batzundako lanak dira.



**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

**M^a Karmen
Lenzeria**

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

GRUPO IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

JABIER ASTOBITZA: "HASERAN TXAKURRAREN KALITATEARI BAINO ITXURARI GARRANTZI HANDIAGOA EMATEN NION"

Printzipioz bere helburua ez zen salbamendu lanetan aritzea baizik eta, soilik, txakurra edukitzea

Jabier Astobitza duela hamalau urte murgildu zen txakur-
rren munduan. Garai hartan artzai
txakurra zegoen indarrean, gaur
egun siberiar txakurrarekin gerta-
tzen den antzera. Mota horretako
txakur baten jabe egin zen. Ordu-
tik lau txakur izan ditu egun
bakarra duen arren: Raisa (Gorba-
choven emaztea ere horrela dei-
tzen da). Iraila geroztik salbamen-
du lanak utziak baditu ere, "buel-
tatzeko asmoa daukat. Txakur-
ren mundua oso gustoko dut eta
modu batean edo bestean jarraitu-
ko dut" adierazi digu Jabierrek
Goibekokaleko erredakziora egin-
dako bisitan.

Betidanik esan izan da txakur-
ra gizakiaren lagunik onena
dela. Beharbada horregatik gizaba-
nakoak lagun moduan soilik ez,
lanerako ere erabili izan du txaku-
rra. Jabier Astobitzak, hala ere,
hasiera batean behintzat gustoko
animalia zuelako egin zen txaku-
rraren jabe. "Bai, hala da. Nik ere,
jende askok bezala, betidanik izan
nuen txakurra edukitzeko gogo-
a. Haseran txakurraren kalitateari
baino itxurari garrantzia handiagoa
ematen nion. Denbora aurrera joan
ahala Elorrixoko salbamendu talde-
koak ezagutu nituen eta pixkana-



Txakurra ongi entrenatuta dagoenean edozein lekutan ibiltzeko gai da.

ka-pixkanaka mundu honetan sar-
tu nintzen. Gustoko nuen".

Europako onenak

Elorrixoko salbamendu talde-
dekoak, gaur egun europan dagoen
salbamendu talderik onenetariko-
a da. Jabier bezala, afizioz hasi ziren,
"Hasiera batean, erasorako presta-
tzen zituzten txakurrak, baina den-
borarekin eta Frantsezen irakatsiei
jarraituz batez ere, salbamenduan

sartzen hasi ginen". Berauek izan
ziren estatu mailan lehenengo sal-
bamendu taldea eta gaur egun ere
ez dira oso ugariak Jabierrek adie-
razi digunez. "Gu hasi ginenean
estatu mailan ez zegoen horrelako
talderik. Egun bada Asturiasen tal-
de bat. Beste leku batzuetan ere
egon dira saiakerak salbamendu
taldeak sortzeko, hala nola, Madri-
den, Kataluinian, Kanariar Irletan,
Andaluzian... baina denek porrot
egin dute".

OSTATU
JATEAK

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Andoni Bolinaga
METALAK

FS7 18

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA


Edozein txakurrek ez du lan hau betetzeko balio, txakur bakoitzak bere ezaugarriak baititu eta ezinbestekoa da egoera guztietara ongi moldatuko den txakur bat edukitzea, "Guk gehien erabili ditugunak artzai txakurrak izan dira, nahiz hemengoa nahiz alemaniarra. Artzai alemaniarra adibidez, oso konpletoa da. Bai eskonbrotan, bai basoan eta baita elurretan ere oso ondo moldatzen da. Hori abantaila izugarria da guretzako". Bilaketak egiterako orduan txakurrarentzat lekurik errazena zein den galdetzerakoan aldiz, honela zioen Jabierrek: "Dudarik gabe elurretako bilaketak dira errazena txakurrarentzat. Normalean elurra garbia egoten da eta errazagoa da txakurraren usaimenerako".

Bitxikeri onak... eta txarrak.

Hainbeste urtetan salba-



Umeez bezain azkar igo zuen Raisak bere jabearen aginduei jarraituz.



Jabierrek era guztietako azalpenak eman zizkigun erredakzioa bisitatu zuenean.

mendu lanetan ibili ondoren bitxikeria edo anekdota ugari bizi izan dituzte, "Bai, horrela da. Aralarren gertatutakoa adibidez oso bitxia izan zen. Donostiako bi mendizale galduak ziren eta helikopteroz igo gintuzten bilaketa lanak egitera. Aurkitu genituenean helikopteroa itzuli egin zen galdutako bi mendizaleekin. Ordubetean bueltan izango zirela esan ziguten baina itxaroten geundela elurra hasi zen eta helikopteroak ezin izan zuen airea hartu. Momentu hartan gurekin zeuden bilbotar bien aurpegiak ikusi bazenituzte..." kontatu zigun Jabierrek. Denak ez dira izan barrengarriak ordea. Momentu txarrak ere ugari bizi izan dituzte. Hainbat aldiz, informazio faltagatik edota datu okerrak jasotzeagatik, beraien bizitzak ere arriskuan egon izan dira. Jabierren ustez informazio falta da hain zuzen salbamenduetan aurki-tzen duten arazo nagusienerarikoa, "Salbamenduak egiterako orduan izaten dugun arazo handie-

netariko informazio ezarena izaten da. Gehienetan, familiartekoek eskaintzen duten informazioa ez da zuzena, gauza asko gordetzen dituzte. Normalean arazoak izaten dira desagertutako pertsona eta familiartekoen artean".

Salbamendu entrenamendu batetan erabiltzen diren tekniken erakustaldi txiki bat ikustera joan baino lehen, ez genuen elkarriketa bukatu nahi izan, Jabierrek, hain indarrean dagoen txakur siberiarrari buruz zuen iritzia jakin gabe, "Siberiarrak indar handiz sartu dira merkatuan, baina txakur hauek ez dute entrenamendurako balio. Txakur mota hau izan duten gehienek arazorenbat izan dute, baseritarrekin... Ez dute kasurik egiten eta askotan hainka egiten dute. Txakur hauek tirorako oso onak dira, baina paraje honetarako beste txakur klase batzuk hobekak direla uste dut".



IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

Maisu - maistrak

Kaixo *Goibekokale*, gu DBH-ko 1. mailako ikasleak gara hain zuzen ere eta hasteko, maisu-maistreganako irtzia emango dizuegu.

Aurten hasi gara Bergarako eskolan Ipintza Miguel Altuna institutoan eta harritu egin gara maisu-maistrekin. Lehenengoz bi ikuspuntu daukagu: lehenengoz, batzuk oso gogorak iruditu zaizkigu eta beste batzuk oso exigenteak baina, ez ezazue pentsa ez daudenik ondo tratatzen gaituztenak ere.

Gutxi gora-behera hamar maisu-maistra daukagu.

Hamar horietatik gehienak edo batzuk beintzat gogorak iruditu zaizkigu.

Gu bi taldetan banatu behar izan gaituzte eta horrela gauden banaturik, 1-A taldean:

1- Maider Cainzos

2- Maialen Elortza

3- Josu Etxaniz

4- Aner Fernandez

5- Jon Irazabal

6- Nagore Oianguren

7- Goratze Oianguren
hauen tutorea Jone Goikoetxea, ondarrutarra da.



1-B taldean aldiz, hauek dira:

1- Ainara Arantzabal

2- Ane Bilbao

3- M^a Karmen Bolinaga

4- Eneko Garate

5- Mikel Juaristi

6- Paula Larrañaga


7- Ekaitz Makarro

8- Idoia Urgoitia

1-B-koen tutorea Estibaliz Arando da, hau ere bizkaitarra.

1-A-ri tokatu zaion tutorea Jone Goikoetxea hain zuzen ere orain dela hiru urte Elgetako eskolan egon zen eta 1-Bri Gizarte ematen dien maistra ere Elgetan egon zen orain dela parebat urte.

Orain maisu-maistreganako kexa batzuk idatziko dizkizuegu. Hasteko, batzuk kexatzeko modukoak dira, euskaldunei klaseak eman behar eta euskaraz erdi-purdi ibiltzea baina, ez gara euskarra ematen digun maisuaz bakarrik kexatzen. Beste kexa bat zera da, batzuetan usain eskaxa edukitzen dutela, ez dugu nahi, kolonia pote bat botatzea egunero, horrela ezin gara kontzentratu. Euskarako maisua oso jatorra da, baina klaseak ez ditu hain ondo ematen, pelota egiteko zaila da, bera erraz konturatzen baita norbair pelota egitera doanean. Badu alde txar bat, edozer gauza egiez gero, barre edo hitz egin eskua altxatu gabe "pusta-



ria behera". Amaitu dira kexak baina seguru aski galdetuko duzue, zer da pustarri bat? Ba horixe esplikatzera goaz: Pustarri batek negatibo bat esan nahi du, baina ondo portatzen ez bagara kentzen du.

Maisu-maistra bakoitzak ere badauka ohitura bat eta horietako batzuk idatziko ditugu. Euskerako maisuak, Koldok, eskolak gora begira azaltzen ditu eta kalean berriz behera begira ibiltzen da. 1-A-ko gaztelerako maistra klase osoan ez da jartzen beti pasiatzen dago. Jantokian ere maisu-maistrak ikusten ditugu. Batzuk klasean baino askoz ere jatorragoak dira.

Beno, gu agurtzera goaz, ondo pasa ezazuela.

DBH-ko 1. mailako ikasleak

Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



San Roke 6
tel: 768168.

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

SOLOMO BETEA
Sukaldaria: Kontxi Idigoras.
Panaderokua Taberna



NOLA PRESTATU:

Hasteko, okela xerra finetan ebaki baina guztiz moztu barik.

Tarteka-tarteka, urdaiazpiko egosia eta gazta (meheak biak ere) sartzen joan; hari batekin ondo lotu. Aurrez labea 180° tan prestatuta izan. Okela ontzi batean ipini eta ordu bete inguru bertan eduki.

Bien bitartean, saltsa egin: sutan ontzi batean , olioa, kipula, urdaiazpikoa eta berakatzatza zatitu. Irabiagailuarekin txikitu eta gaztanbera, ardoa eta ura gehitu. Ondoren berotu eta berriz irabiatu.

Okela egindako ontzira saltsa apur bat bota, eragin eta berriz saltsarekin nahastu. Irabiatu berriz saltsa fin-fina gelditzeko.

Okela eginda dagoenean, hozten laga eta haria moztu. Xerratan moztu diagonalean, eta saltsa beroa gainetik bota.

OSAGIAK:

Solomoa osorik 1kg.
 150 kg. urdaiazpiko egosia
 200 gr. gazta xerratan
 Gatza
 Pipermina

Saltsa egiteko osagaiak:

50 gr olioa
 50 gr urdaiazpiko egosia
 Kipula buru txikia
 Berakatz ale bat
 150 gr gaztanbera
 100 gr ardo zuria
 200 gr ura
 Gatza eta pipermina



GOMENDIOAK:

- Bakoitzak berak nahi duen betegarria edo saltsa erabil dezake.
- Okela ez da gehiegi egin behar, sikatu egiten da eta.

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak , saiheskia erreta.

tel: 768273

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

FUTBITOA MARTXAN DA

Bada hilabete bat futbitoa hasi zela. Aurreko larunbatean jokatu ziren partiduei dagokienez esan, berdinketa bat eta Alferrak taldaren garaipen bat izan genuela. Berdinketa Bar El Arco eta Angiozarren eskutik etorri zen hiruna berdindu baitzuten. Bestalde Durangoko Alferrak taldea HHHri gailendu zitzaion. Lehen zatian bina amaitu zuten arren(biga-

rren zatian hiruna ere joan ziren), HHHk ordezeko jakalaririk izan ez eta horrek dakarren beherakada fisikoa medio gol bat bestearen atzean jaso zituzten. Azken emaitza 10 eta 4.

Nesken partidua berriz, bertan bera geratu zen bi taldeen akordio batera helduta jendea falta baizitzaien taldeak osatzeko.



Luzelek, txapelkeako hiru elgetar taldeetako bat.

SASKIBALOIA EGOERA EZINHOBEAN

16. ihardunldia jokatu ondoren, Elgetarrek bere hortan jarraitzen dute eta oraindik ez dute partidurik galdu. Are gehiago, hilabete honetan jokatu dituzten partidu guztiak 40 puntuz goitiko aldearekin irabazi dituzte azkena kenduta. Honek taldearen gorputzaldi ona erakusten du, aurrerantzean ere zaindu beharko

duena ezustekorik jaso ez nahi badutela behintzat.

Amaitzeko eta zenbakietara itzuliz esan, duela bi aste sartu zutela puntu gehien partidu batean (73); marka bikaina kontutan izanda 1.go eta 2. zati haundi batean erlojurik gelditzen ez dela.

TXIRRINDULARITZA DENBORALDIA ABIATZEAR

Asteburu honetan emango zaio hasiera Euskal Herrian afizionatu mailako txirrindularitza denboraldiari. Aurten eta bosgarren urtez jarraian elgetar txirrindulari bat izango dugu bertan, Oskar Askasibar. Iaz bezela, aurten ere Arrasateko Born-jay taldean arituko da. Talde honek bere 3. urtea beteko du pelotoian eta piskanaka bada ere bere lekutxo bereganatu du bai Euskal Herriko bai estatu mailako lasterketan.

Askasibarrek bihar izango du negu osoan aurrera eraman duen presetaketa agertzeko lehendabiziko aukera. Llodion izango da elite mailako txirrindulariei irekia egongo den lasterketan.

Hurrengo aleetan Xabier Arangurenen pausak ere jarraituko ditugu, honek ere denboraldia gutxi barru hasiko baitu.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola
VIVO
Janari
denda



Tel: 76 81 67

AITOR ELKORO: "ASPEK EGINDAKO ESKAINTZA OSO INTERESGARRIA IRUDITU ZAIT"

Azken aste hauek ez dira nolanhikoak izan Elkororentzat. Alde batetik binakako torneoaren finala jokatu du Etxanizekin batera eta bestetik enpresa berriaren sorrerak eztabaidaren erdi erdian hartu du.

- Non egon zen finaleko gakoa?

Markagailuak 21 eta 20koa seinalatzen zuenean gozatzeko moduko pilota izan nuen eta zabalera joan zitzaidan. Dena den, gakoa partidu guztia izaten da. Haserako tantoak ere oso garrantzitsuak izan ziren, gu oso urduri atera ginen eta aurkakoez ondo aprobeztatu zuten aukera. Zailena egin ondoren ezin izan genuen irabazi. Pena izan zen.

- Orain eskuz banakako txapelke-

ta prestatzen hasi behar ezta?

Bai. Orain bizpahiru egun atsedenerako hartuko ditut, erreku-peratzeko. Gero burubelarri hasiko naiz eskuz banakako txapelketa prestatzen.

- Fitxatu al duzu Asperekin?

Bai. Hilaren 23an sinatu genuen. Aurretik aurreakordio bat sinatuta neukan baina, esan bezala, otsailaren 23an Asegarcerekin lotzen ninduen kontratuko klausula ordaindu eta Asperekin sinatu nuen.

- Zerk bultzatu zaitu pausu hau egitera?

Nik, pertsonalki, ez dut ezer Asegarceren aurka. Nirekin oso ondo portatu dira beti, Aspek kontratu hobea eskaini dit ordea.

- Asegarcen gustora al zeunden?

Leku guztietan gertatzen den bezala beti izan ditugu gure diferentziak, baina orokorrean nahiko gustora egon naiz. Enpresa berriak eskaintza polita egin dit eta proiektua ere oso interesgarria iruditu zait.

- Gutxiestuta sentitzen zinen?

Infrabalaratua ez. Banekien batzuk ik baino gehiago irabazten zutela, baina hori normala da. Kirolean egoerak ongi aprobeztatu behar dira eta batzuk oso ondo aprobeztatu dute berea. Norberak bere interesen alde egiten du eta, kasu honetan, irtenbide onena enpresa aldatzea zela uste izan dut.

- Enpresa berri hau sortzeak zein onura ekarriko dizkio pilotari?

Orain arte Asegarcen monopolio bat osatzen zuen. Azkenaldian ordea, arazoak izan ditu pilotariekin lehenbizi, Euskal Telebistarekin ere ez dira konpndu, txapelketaren ofizialtasuna dela eta ez dela Federazioarekin ere izan dituzte zenbait tira-bira... Proiektu berri baten beharra ikusten zen. Orain ikusi egin behar Asegarcen zein jarrera hartzen duen. Nire ustez enpresa bietako pilotariak bata bestearen aurka aritzea izango zen politena. "Pikea" egon dadila, azken finean.

- Bukatzeko Aitor, hitz batzuk hainbeste jarraitzen dizun afizioarentzako.

Finaleko giroa izugarria izan zen, beharbada eskuz banakakoan baino handiagoa. Pena izan da txapela eskaini ezin izana. Dena den, horrela jarraitu dezatela lehenago edo beranduago txapelaren bat lortuko dugu eta.



Aitorrek egun pare bat deskantsatuko du berriz ere buru-belarri ekiteko banakako txapelketan

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

AZKUNETA

(Arezkurenaga)

Ermita: San Martin de Tours

Jaia: Azaroaren 11n.

San Martin egunetik hurren gelditzen den zapatuan ospatu dute azken urtetan jai eguna. Urtetan oso ahulduta egon den jaia izan arren berriz ere indartu da azken hiru urteotan.

Eguerdian meza egoten da eta ondoren erromeria soinu-joleekin eta gonbidapena etorritako guztientzat.

Orain dela gutxirarte maiordomo aldaketa hurrengo domekan egingen zuten: urteko kontuak garbitu eta ondoren baba zuri jana egingen zuten.

Baserriak eta etxeak:

- Migelena (Arezkurenaga suso)
- Berradona (bi bizitzaduna)
 - Pagaldai
 - Gaztelu

- Aldekona
- Frantzina (Jaunzuriena)
- Elizalde (bi bizitzaduna)
 - Retolaza
 - Alustiza

- Errotia (Errotiaga) hutsik
- Elizaldebarri
- Askasibar-enea (Migelenako etxe berria)
- Frantzinabarri

Frantzina (Jaunzuriena)

Aldekonara Elortzatarrak etorri baino urte bat geroago, 1915an etorri ziran Felipe Oianguren eta Pilar Kortabarria Frantzina bizitzera. Zubilagako Erguine baserritik zetozen bizimodu hobea baten esperantzan. Urte beteko seme batekin zetozen (gerran zibilean hil zen, Villaviciosan) eta gaur ezagutzen dugun Farntzinatik beste moduko etxe batera. Ordutik etengabe ihardun dute etxea hobetzen eta egokitzen, gaur egungo Frantzina heldu arte.

Etxearen itxurazko fatxada hegoaldera begira dagoela dirudien arren ez da horrela, teilatuko gailurra da horrela dagoena ezarria, etxeko atea ekialdera begira dago eta. Jaunzuriena jatorrizko izena zeharo eraldatua darabilgu gaur, auzoa berarena bezala.

Felipek eta Pilarrek Angiozarren beste hainbat etxeren jabe ziren Azkonatarreri erosi zieten etxea. Hain zahartua ei zegoen etxea, behin Felipe sabaian zebilela lurrak failau eta kortan astoaren gainean ankalatrabala gelditu zen. Horrela aurkitu ei zuen Pilarrek erretolika baten. Aurrez etxea hutsik zegoen, bertan bizi zirenak Oñatira alde egin zutenetik.

Bost neska eta mutil bat eduki zituzten Felipe eta Pilarrek. Gerra denboran Zumarragara konfinatuta eduki zuten frankistek Felipe, andrea bost alabakin baka-



Aldekona baserria.

rrik geldituz. Angiozar militarrek hartuta egon zen garai hartan (1936-37) Felipe mezetara zihoala hiru aldiz soldaduek "cuerpo a tierra" esan eta lurrean etzanarazi ei zuten, azkenengoan Jesukristoren pasioaz gogoratu eta "hirugarren eroraldia" esan ei zien soldaduei, egoera hari umorez aurre eginez.

1950an Gontzarri azpiko Jose Mari Gallastegi ezkondu zen Frantzina eta gaur egun ezagutzen dugun Gallastegi-Oianguren familiari hasiera eman.

Hauen alaba den Ana Mari Afrikako hainbat lekutan misiolari izandakoa da: Ruandan, Kamerunen, Togon,... hemeretzi urterekin Ruandara joan zenetik (orain dela 28 urte) pigmeoekin egin du bizi-

tzaren zati handi bat. Atarian zintzilik dituzte handik ekarritako txori-joztunen habiak, benetan lan zoragarria eta esan ezik sinistu ezin daitekena txori batek egina denik.

Eta Frantzinak beste etxe bat sortu du duela urte gutxi:

Frantzinabarri

Frantzinako seme den Jose Gallastegi eta Laura Etxaniz bergararra ezkondu zirenean jaso zuten etxe berria 1993an, Azkunetako etxegunea eta Aldaitxarren errota bitartean dagoen zokogunean, etxeko soloetan, Altzarteko iturritik gertu.

Ez da baserria, etxe bizitza soila da, baina badu berezitasunik:

Euskal Herriko etheen itxuraz jaso da eta gainera aspalditxo gure artean baztertuta zegoen eraikuntzarako teknika bat berreskuratu du, hau da, egurrez egina dago bere egitura. Teknika hau, iparraldean oso erabilia, gure inguruko konstruktoreek baztertuta zuten, igeltseroen mesedetan, nahiz eta garai baten erabiliena izan. Angiozarren garai bateko estilo horretatik Andiketxeko fatxada da gelditzen den bakarra.

Hegoaldera begira, Azkonetako etxe berrien orientazioa hartu du Frantzina zaharraren "seme" honek. Azken hamar urtetan egin diren etxe berrietan "bitxiena" da dudarik barik Frantzinabarri.



Frantzinabarri.

Aldekona

Auzoko etxerik dotoreena da duda barik Aldekona. Teilatua lau uretara, etxaurrean larraina, bi arku eta etxea jaso zutenen ezkutua lehenengo pisuko balkoi tartean. Auzoko beste baserri etxe guztiak bezala ekialdera begira du etxaurrea (azken hamar urtetan egin diren etxe berriak ostera hegoaldera begira dute etxaurrea) eta bertan pegatuta zuen txabola aurten kendu diote, berarekin batera ogia egiteko laba ere kendu dutelarik.

Lan hauek asko dotoretu dute etxea, baina ez dira izan eduki dituen aldaketa sakonenak. 1914an etorri ziran bertara bizitzera Elortzatarrak. Aretxabaletako

Galartza auzoko Zaloña baserritik etorri ziran Juan Domingo Elortza eta Maria Izurrategi, ordurako seme alaba guztiak jaiota, txikiena, Julian, sei hilabeterekin eta batzuk mutilduta ere bai, esate baterako Leandrok hemeretzi urte zituen ordurako. Baina ez dago dudarik ederto egokitu zirela Angiozarren, Elortza abizenak eduki duen zabal-kundeak agertzen digunez, gaur egun zortzi familiak dutelarik apelido hori, lehenengo lauren tartean, Angiozarren.

Zaloñatik Aldekonara etortzeko arrazoia herentzia izan zen. Maria Izurrategiri bere osaba zen Pedro Sorondok etxea utzi zionean errentzan zuten etxea laga eta jabe bihurtu barri ziren etxera aldatu

ziren.

Elortzatarrak heldu baino lehen Aldekona bi bizitzako etxea zen. Batean Teofilo Santa Cruz eta familia bizi ziren eta bestean Juan Manuel Zenitagoia familiarekin. Bi familia hauek Gariketxeko errentero jarri ziran bizitzen urte horretan. Gerora Santa Kruzatarrak Eguzkitzara joan ziran bizitzera eta Zenitagoiatarrak San Juango Agarretxebarrira. 1914tik aurrera bizitza bateko etxea izan da, bai barruan zein kanpoan egin diren lanak horretara egokitu dutelarik etxea.



Berez etxea nahiko berria da, Gipuzkoak XVIII. mendean Ameriketarekin zuen komertzioaren ondorioz bizi izan zuen egoera ekonomiko ezin hobearen denboran jasotakoa. Aldekona jasotzeko dirua ere Ameriketatik ekarritakoa ei da: hiru anai "indiano" amerikak eginda herrira itzuli zirenean, batak Aldekona etxea jaso ei zuen, besteak Angiozarko elizarako organo berria ordaindu eta hirugarrenak domeketan goizeko 11,30etan meza emateko dirua utzi.

Gaur egun Jabier Elortza eta Nati Ezpeleta bizi dira seme alabekin eta etxeko amandria den Balentinarekin batera. Balentinak ikaragarriko memoriaren jabe dela erakutsi zigun, 87 urterekin mende honetan bizi izan diren gertakizun garrantzitsu guztiak bizi izan baititu bere akorduan eta ondo baino hobeto gogoratzen da guztietaz.



Frantzina baserria.

LEHIAKETA




Honekin afarixokin jentia animatzia ez da zailla. Auskalo zenbat afari emon dittugun Elgetako tabernen laguntziakin, galduta dakagu kontua. Oindiok ez jatzula tokau sekula? Ez izan beldurrik ondio beste horrenbeste afari emoteko asmua dakagu.

Afaltzera fateko hiru pausu emon behar dila esanda dakagu, kartia idatzi, asmau ta zozketan irabazle urten. Hiru pausuok Garaxi Oiangurenek egiñ dittu eta bera fango da afari eder-ederra jatera.

Gaiñontzekuok idazten jarraitzia besteik ez dakazue. Afarixa irabazteko, trukian zeozer emon bihar, erantzuna. Oinguan musika zerrenda guztietan aurrian egon dan musika talde baten izena emon ta listo. Erantzuna badakizue nora bialdu, *Goibekokalera*.

KOMIKIA





Argazkia: Maite Mandaluniz

Tertulixa edarra kopen inguruan

Motiboik badago bazlalosteko hau erretratuau etartzeko. Tertulixia ez da gaur egunian gehixen egitten dana afari eta bazkari ostetan. Oiñ telebisiñuak lekua hartu dau ta berba egiñ ezkerok ixilik egoteko agindua laster jasotzen dogu.

Orduan ez zeuan telebisiño biharrik denboria pasatzeko. Honek gizonok behintzat ez zeben faltan bota kaja tontuoi:

Ezkerretik eskumara: **Felipon Martintxonekua, Andres Larreategi, Pedro Gorrotxategi, Anizeto Arantzeta, Jesus Larreategi, Migel Sestoazpi, Julio Ugalde Panaderokua** ta geratzen dana ez dogu zein dan jakitzeik euki.

Hau erretratuau ipintzeko motibua urrezko eztaiak betetzen dittuan bikotiakin akordatzia izan da. Erretratuan ageri dan Pedro Gorrotxategi eta Mirena. Zorionak ba bixoi.

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxes: 767058



MODELO BERRIAK
Kalitate hobeaz preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU

Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564

